MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

Laugarren mailako 172 ikasleek eman diote hasiera ikasturte honetako Hezkuntza graduetako praktikaldiei

2015/10/20

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduko 4. mailako ikasleak joan dira azken kurtsoan egin behar dituzten lehen praktika txanda egitera. Hala, hiru hilabeterako, guztira, gradu horietako 172 ikasle ibiliko dira praktikak egiten ikastetxe eta hezkuntza berezietako zentruetan; horietatik guztietatik, gainera, 17 Europa barrena ibiliko dira, eta beste 24 Latinamerikan. Laugarren mailakoak lehenak dira praktika garaia hasten, ondoren, 2. eta 3. mailako ikasleek ekingo diote praktikei.

Praktiketako lehenengo txanda honetan Hezkuntza graduko 4. mailakoak joan dira.

Hezkuntzako graduetan sekulako garrantzia dute eskola eta hezkuntza zentruetan egindako praktikaldiak. Horregatik, graduan zehar hiru praktikaldi desberdin egin behar dituzten ikasle guztiek.

2015-2016 ikasturtean, honelako praktiketako egutegia dute **Hezkuntzako aurrez aurreko modalitateko ikasleek:**

2. maila

- Egonaldi bakarra, Euskal Herriko ikastetxe eta hezkuntza zentruetan.
- Hilabete eta erdiko egonaldia: 2015eko azaroaren 9tik abenduaren 18ra.

3. MAILA

- Egonaldi bakarra, Euskal Herriko edo Espainiar estatuko ikastetxe eta hezkuntza zentruetan (Erasmusera joanda dauden gehienek bertako eskoletan egingo dituzte praktikak).
- Hilabete eta erdiko egonaldia: 2016ko urtarrilaren 7tik otsailaren 19ra.

4. MAILA

- Bi egonaldi.
- Lehenengo txandan, Euskal Herriko, Europako edo Latinameriketako ikastetxe eta hezkuntza bereziko zentruetan. Bi hilabeteko egonaldia. 2015eko urriaren 19tik abenduaren 18a.
- Bigarren txandan, Euskal Herriko ikastetxe eta hezkuntza zentruetan. Hiru hilabeteko egonaldia: 2016eko otsailaren 29tik maiatzaren 27ra.

Hezkuntza online-ko modalitateko ikasleek, aldiz, hurrengo praktika egutegia daukate:

2. MAILA

- Egonaldi bakarra.
- Euskal Herriko ikastetxe eta hezkuntza zentruetan.
- Hilabete eta erdiko egonaldia (2015eko azaroaren 9tik abenduaren 18ra).

3. MAILA

- Egonaldi bakarra, Euskal Herriko edo Espainiar estatuko ikastetxe eta hezkuntza zentruetan (Erasmusera joanda dauden gehienek bertako eskoletan egingo dituzte praktikak).
- Hilabete eta erdiko egonaldia: 2016ko otsailaren 1etik martxoaren 11ra.

4. MAILA

- Bi egonaldi. Lehenengo txandan, 2015eko azaroaren 2tik abenduaren 18a. Bigarren txandan, 2016eko otsailaren 1etik martxoaren 18ra.

Egokitze kurtsoko ikasleek eta Bigarren gradua eta aipamena egiten ari direna, azkenik:

Egokitze kurtsoa eta bigarren gradua/aipamena

- Bi egonaldi.
- Lehenengo txandan, Euskal Herriko, Europako edo Latinameriketako ikastetxe eta hezkuntza bereziko zentruetan. Bi hilabeteko egonaldia: 2015eko azaroaren 2tik abenduaren 18a.
- Bigarren txandan, Euskal Herriko ikastetxe eta hezkuntza zentruetan. Bi hilabeteko egonaldia: 2016eko otsailaren 1etik martxoaren 18ra.

Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko ikasleek, bestalde, Gabonak pasatu eta gero joango dira, egun osoko jardunean, bi hilabeteko praktikak egitera.